

A. Zure ustez, Zer faktore nagusik areagotzen ditu energiari loturiko berotegi efektua eragiten duten gas isurketak?

Faktore politikoak:

- Energia jakin batzuk lehenesten dira. Erregai fosilen mendeko nahasketa energetikoa. Energia asko kontsumitzen duen ekoizpen eta industria ereduak.
- Ez da energia trantsiziorik egin eta ez da ari mesedetzen energia ereduaren aldaketa legediaren bitartez. Inbertsioa falta da energia berriztagarrien ezarpena aztertzeko.
- Mugikortasun motorizatua errazten duten mugikortasun politikak (eta hirigintza politikak).
- Egoera geopolitikoa eta gobernuen (Espainiakoa eta EAEkoa) konpromisoak.

Gizarte faktoreak:

- Kontsumo ereduak. Badaude produktu eraginkorrak, baina ez dago kontzientzia sozialik eta horiek erabiltzeko moduari buruzko ezagutzarik. Pertsona guztiok kontsumitzen dugu energia, baina ez da gogoetarik egiten horrekin lotutako eraginei buruz; ikusezina da. Ez dago gizarte kontzientziarik.

Faktore ekonomikoak:

- Produktuaren prezioa eta harekin lotutako energia kontsumoa bereiztea (karbono aztarna edo energia motxila).
- Garraioaren ezkutuko kostuak kanpora ateratzea.

Egitura faktoreak:

- Energia kontsumo handiko lurralde , hirigintza , eraikin eta garraio ereduak.
- Globalizazio prozesua eta salgaien, pertsonen eta informazioaren mugimendua.

B. Zure ustez, zein izango da etorkizunean energia kontsumoari lotutako joera eta zer ildok izango dute eragin handiena? Zein uste duzu izango dela joera energia sorkuntzari dagokionez?

Jaitsi egin daiteke, baldin eta:

- herritarrei informazio gehiago helarazten bazaie eta gehiago sentsibilizatzen badira, eta eraginkortasunez areagotzen bada gizarte kontzientzia, kontsumo arduratsuen ohituretara aldatzea lortuta.
- Mugikortasunaren arloan neurri eraginkorrak ezartzen badira ibilgailu motorizatu pribatua murrizteko, garraio publikoa garatzen bada eta sektorea elektrifikatzen bada.
- Araudia aldatzen bada eta energia berriztagarrien garapena bultzatzen bada.
- Hirigintzan trinkotze ekintzak egiten badira, hiri hedapena gelditzen bada eta birgaitzeko eta eraikuntza "ekologikoko" politikak eraginkortasunez abiarazten badira.

Isurien joerak gorabidean jarraitu dezake honako alderdi hauen ondorioz:

- Kontsumoa eta nagusi den garapen ereduak areagotzen bada.

- Energia ereduak aldatzen bada eta ez badira legedi aldaketak egiten (energia, ingurumenaren arloko zerga sistema, hirigintza, garraioa...), berotegi efektua eragiten duten gas isuriak arintzeko neurri eraginkorrak ezartzeko moduan.
- Ez badira gaitzen energiaren, garraioaren eta automozioaren arloko lobbien presioak eta interes ekonomikoak.

Energia ekoizpenari dagokionez:

- Borondate politikoa izan behar da energia berriztagarriak garatzeko eta abian jartzeko.
- Energia eolikoak indar handia du lurraldean, baina gizarteak ukatu egiten du.
- Hiri oso trinkoak ezarri beharko lirateke, ortuekin, eguzki energiarekin eta energia fotovoltaikoarekin. Eraikinetan energia fotovoltaikoa finkatu beharko litzateke.
- Energia berriztagarriaren eskaera eta kontratazioa areagotu daiteke administrazio publikoen eskutik.

C. Ezagutzen duzu zure jardueraren eremuari loturiko energiaren emisio kopurua?

Oro har, ezezkoa izaten da erantzuna, salbu eta berotegi efektua eragiten duten gasen edota klima aldaketaren ildoko gaiarekin lotura profesionala duten pertsonen artean.